




*Santillana del Mar'eko atean
pantokrator edo alguztiduna*

Nondik: Frantzia-erdian eta Italia'ko iparraldetik agertu zala dirudi, baiña toki askotan sortu eta gero alkartasuna lortu be bai,

Agerik-age arkuak ipinten dauz, beti obo-erdikoak, bardin leioen gaiñean, obo-erdia iñoz-iñoz goratu egiten dabe, iruburu-ko egin be bai.

Apaingarriak: Ateetan ipinten dira batzuk beste batzuk itusuren barrenetan, kapiteletan eta absidean. Atekoa izaten da apaindue-na: turuta-antzekoa (abocinado) eta arkiboltak dauzala zortzi-inguru, goian tinpanoa eta onen erdian giltzarria edo klabea Kris-to'ren irudiagaz. Ateak lau bat age eukiten dauz, ez bardiñak, apainduta. Leku guztietan errez agertzen dira pizti bildurgarriak eta landarak naiz jeometri-apain-garriak.



Portugal: Koimbrako gotzain-eleiza erromanikoa

Portugal'en be zabaldu da eta Santiago bidean ederlan arrigarriak dagoz, bide guztian.

Margoak be ugari dagoz erromanikuan, eta ederrak, baita leiar (bidriera) eta bitxiak be.

Olazar'tar MARTIN



Lekaide kluni'tarren eleizea



Angulemako gotzain-eleiza erromakua

BALE-DENPORAK

Bizkai'ko kairik zarrena Bermeo da, zalantza barik. 1082n. urtean agertzen da Donemiliane'n. "in portu de Vermelio" egoan Mikel deunaren eleizea eta au Donemiliane monastegiari emoten jako.

Hita'ko Artzipreste idazleak Bermeo'ko bokartak eta beseguak gogor-tzen dauz.

Ur aundietako arrantzaleen artean ospetsuenak bale-zaleak izan ziran eta erriko ikurdian balea agertzen da: beste kai-erri askotan lez.

Bizkaia'n berton asi ziran bale mota bat eizatzen, baiña gero urriñago joan-bearra izan eben, XIV gizakian joaten ziran ara, Kolon baiño askoz lenago.

Olazar'tar Martin



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU